

**ERIOTZA**

Nundik ator, esain, errondari zentoi?  
 Nundik ator, esain, sorgin mintzul ori'  
 Txapiñez oiñak ta jazki baltzeten goi,  
 nundik ator olan, arnasaz sargori?

Nora oa, eize-txakurrez inguru,  
 esku-bete laiño ezpan-gaiñ dokala,  
 aize zaurituak daitezan ixildu  
 ta zarrak daitezan askatu, goibela?

Nora oa, illeun gerizaz betea,  
 arrats euritsu ta jzar itzalia,  
 basauntz igeskor ur egarriz asea,  
 uso txunditu lez ganduz estalia?

Norantza oa —ots!—, urrutiko ispilla,  
 ñarñar-istalari makopean zear,  
 maite-jarraigoa atzetik oin-zalu  
 arrikatzeko soz nasi ta ler-bear?

Nungo are-pillo, nungo elbitz-meta  
 igaroaz oa, egunen ertz-barna?  
 A, eitztari izukaitz, ire leiaketa!  
 Nor opa ete don erakar eugana?

Ire ispilla otz gaiñ ukur dago gaua;  
 egal illunak be —au olerki otza!—  
 gandu ozkirria zeatu darua,  
 artzari dauala leiaren isatsa.

Nundik ator, esain, errondari zentoi?  
 Nora oa, illeun gerizaz betea?  
 Ez eistan barruan dardar ein izukoi:  
 oraindik bizia yonat nik maitea.

**BEKOKI OTZA**

Eguzkia nasai  
 ebillen goi-ortzez...  
 nik ezpan gorri zu  
 jo zindudan goizez.

Su-zuzi a legez  
 zindudazan uste:  
 soin-gogo ederra,  
 bero, sua beste.

Baiña nik ikutu  
 neutzun bekokia  
 arri zuri zendun,  
 otza, su bagia.

Soin zati galanta,  
 dizdiz aundikoa;  
 baiña aragi txatal  
 bizi urrikoa.

Udaz goiak zear  
 eguzkia eder...  
 Aretik ez artzen  
 bekokiak ezer?

Goizez, ixil-ixil,  
 nik zu aoz iku,  
 ta lili guria  
 otz neban aurkitu.

Zure bekokia,  
 ai!, su barik dago:  
 izotza bera lez,  
 edo-ta otzago?